


Euskal AEko eraikuntza-kostuak %2,4 igo dira 2024ko urtarrilean

2023ko urtarriletik 2024ko hil berera, prezioen igoera %3,0koa izan da

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea %2,4 igo da 2024ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean. 2023ko hil beraren aldean, kostuak %3,0 igo dira.

Eraikuntzako kostuak %2,5 igo ziren eta Obra Zibilekoak %1,9. 2023ko urtarrilaren aldean, prezioak %3,2 igo dira eraikuntzan eta %2,3 obra zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Aurreko hilaren, 2023ko abenduaren aldean, **lehengaien** kostuak %0,8 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak %5,4. Urte arteko datuei dagokienez, lehengaien kostuaren igoera %1,6koa izan da, eta eskulanarena %5,4koa.

Lehengaien kostua hil artean %0,9 igo zen Etxegintzan eta %0,3 Obra Zibilean. Urte arteko bilakaeran, eraikuntzako lehengaien kostuak %1,8 igo dira, eta obra zibilekoak %0,8.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	129,5	2,4	3,0
Eraikinak	129,0	2,5	3,2
Obra zibila	131,6	1,9	2,3
Lehengaiak	129,8	0,8	1,6
Eraikinak	129,2	0,9	1,8
Obra zibila	132,6	0,3	0,8
Laneskua	125,5	5,4	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Otsailaren 23a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioak (2024ko urtarrilean, 2023ko urtarrilaren aldean) azpisektore hauetan igo dira gehien: *Mineral ez-metalikoak* (%5,9), *Altzarigintza* (%3,8) eta *Kautxua eta plastikoa* (%2,9). Sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusiak, aldiz, honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (%28,9), *Petrolio-fintzea* (%13,9) eta *Industria kimikoa* (%5,4).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Urtarrila 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	5,9
Zuraren eta korborearen industria	-0,2
Petrolio-fintzea	-13,9
Industria kimikoa	-5,4
Kautxua eta plastikoa	2,9
Produktu mineral ez-metalezkoak	-0,1
Metalgintza	-0,6
Metalezko artikulak	1,1
Material elektronikoa	-0,9
Material elektrikoa	2,7
Makineriaren fabrikazioa	2,4
Altzarigintza	3,8
Energia elektrikoa eta gasa	-28,9

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Otsailaren 23a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62